

Haurrak dira mundua

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute gaur hainbat liburutegik eta ikastetxek

MIREN KORTA. BILBO.

Hani D. El Masri ilustratzaile egiptoarrak egindako ekarpenak izango dira aurtengo ardatza IBBY Haur Liburuentzako nazioarteko Erakundeak antolatutako Haur Liburuaren Nazioarteko Egunean. Artistak liburuen konpainia ona nabarmendu du aurtengo mezuan eta kartelean.

Urtero legez, mundu osoko hainbat liburutegi, liburu denda eta ikastetxek bat egingo dute IBBYk egindako deialdiarekin. Euskal Herrian, hogeitabat liburutegi eta irakaskuntza zentrok ospatuko dute, gaur, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotzaren urteurrena. IBBYko kide gisa, Galtzagorri elkarteak liburu sortak banatu ditu deialdira atxiki direnen artean. Zentroek nahi bezala erabili ahal izango dituzte sortak; hau da, liburuak zuzenean oparituz edo bertaratu diren haurren artean lehiaketak antolatuz. Elkarrekin egitasmoen originaltasuna kontuan izan du liburuak banatzean.